



LANDUTAKOA KALERA ATERATZEKO UNEA

Azken asteetan Ferialekuan karrozak eta konpartsak egokitzen aritu ostean, bihar erakutsiko dituzte jendaurrean »6-7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-02-21

VIIURTEA 1.635.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA ETNOLOGOA

«Funtsean anarkoa da Inauteria; beti izan dira festa alprojak»

TOLOSA Urte asko eman ditu gure ohiturak eta ospakizunak aztertzen; horien artean Inauteriak

INAUTERIAK «Gutxi aldatu dira, festaren ardatza, hau da, diana, txantxoak, karrozak, zezenak... mantendu baita» 3



Juan eta Jose anaien postua San Frantzisko ibiltokian. R. CALVO



Zizurkilen, kalera irten ziren txikiak semaforoz jantzita. N. URBIZU

INAUTERIETAKO OHIKO BISITARIAK₅

Guztiak bat egin nahi izan dute Inauteriekin₄



Otsailak 21

Irekita, Sarrera doan, Pub Muxu
DJ Julen

Otsailak 28

SU TA GAR EN KONTZERTU HANDIA

SALMENTA PUNTUAK: • Zunbeltz musika denda (Tolosa)
• Peritza taberna (Leitza)
• Leku ona taberna (Etxarri -Aranatz)
• Ilargi taberna (Lekunberri)
• tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

www.salamuxu.com

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI



K Komikia

Martin Mantxo

Guztiak mozorro beraren azpian



» GAUR ZER?

- **10:30.** Erraldoi eta buruhandiak ariko dira kalez kale. Irteera Plaza Zaharratik.
- **11:30 eta 17:00.** Kabi-Alai elkar-terko txarangaren irteera.
- **11:45.** Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.
- **17:00.** Haur Danborrada aterako da Santa Maria Kaletik, Aiz-Orratz elkar-terko antolatuta.
- **19:00.** Tolosako helduen danborradaren irteera Triangulotik.
- **22:30.** Berazubiko Danborrada eta Ingeles Goardia kalez kale ariko dira.
- **23:00.** Mulambo perkusio taldearen kalejiraren irteera Plaza Berritik.
- **23:30.** Iraunkorrek eta Oriako txaranga kalez kale.
- **23:30.** Plaza Berrian kontzertuak: Sinters eta Peachy Joke taldeak.

» ABESTIA

Pintxana

Pin, pin, pintxanarrak gu gerra
Pin, pin, pintxanarrak beti.
Umore ona pastasen degu
Beti sagardotegian,
Gu bezelakorikan ez baita
Tolosako errian.
Neska gaztiak ez lotsik euki
Guregana etortzeko,
Pintxanarrak beti zai gaude
Zuekin dantzatzeko.

(Luis Rezola 'Tximela')

«Herritarren parte-hartzeak, horrexek egiten ditu berezi Tolosako Inauteriak»

MIKEL ARRESEIGOR | Inauterizalea

Tolosa » Urtarrila hasi zenetik gogotsu aritu da lanean Inauterietarako karrozak, dantzak, mozorroak... prestatzen.

NOELIA LATABURU

Ferialekuan, inauterizaleen irudimenaren lantegian, topatu dugu Mikel Arreseigor (Tolosa, 1982). Estreinakoz Zaldunita egunean lagun taldearekin batera kalera aterako duen karrozaren gaintetik erantzun ditu galderak. Hori bai, irrifarra ahoan duela. «Inauterien inguruan? Noski, gogotsu erantzungo ditut!» esanez egin digu ongietorria.

Egun gutxi geratzen dira... Jo eta ke lanean?

Bai, urtarrileko lehen astearen hasi ginen. Egunerok etortzen gara Ferialekura; sartu, badakigu noiz sartzen garen, baina atera... Berandarte egoten gara lanean hemen. **Hainbeste ordu hemen... Azkene-rako hemen danak ezagunak.**

Bai, gure artean harremana dugu eta giro ona sortzen da. Lanera etortzen gara, baina gustuko lana da.

Koadrila handia elkartzeko zaretelane-rako?

Hiru lagun aritzen gara lanean, egunean bertan zortzi izango gara. **Mozorroa zein den jakin al daiteke?**

Bai, uste dut ez garelako oso orijina-

Zaldunita, Astelenita eta Asteartetita gustatzen zaizkit gehienbat, hauek dira benetan Inauteriak

lak izan, telebistako *Fama* saioa irudikatuko dugu. Ikusi ditugu beste karroza batzuk ere ideia berdinarekin...

Antzerki eta guzti orduan...

Bai, bai. Dantza eta guzti egingo dugu.

«Hau, bestea, baietz, ezetz,...» Koadrilan eztabaida asko izan al ziren mozorroa erabakitzeko?

Egia esan di-da erabaki genuen.



HITZA

Baten batek ideia bota zuen eta guztiok ados geunden.

Betidanik ateratzen al zarete karrozarekin?

Aurtengoa lehen aldia da. Gogo asko daukat, urtero esaten genuen

eta aurten azkenean egin dugu. Iaz kamioi zahar bat erosi genuen eta horrekin ari gara lanean.

Inauterietan, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Dudarik gabe, Igandea, Astelehe-

na eta Asteartea gustatzen zaizkit gehiena. Ostegunean-eta ere ateratzen naiz. Hasiera da bai... baina benetako Inauteriak hiru egun hauetan dira. Gainera, niri goizeko parranda gustatzen zait, ohera goiz joaten naizen horietakoa naiz, hurrengo egunerako ehuneko ehuneko izateko. Pentsa, Astelenitan 08:00etarako hasten gara.

Aisialde taldeetan ere zabilzta, beraz... Inauterizale peto-petoa.

Begira, hemen aldameneko karroza Astelenitakoa da, Ttenteke taldearena. Batekin ez bada, bestearekin. Bai, asko gustatzen zait Inauterietan parte hartzea, betidanik. Izan ere, horrexek egiten ditu berezi Tolosako Inauteriak, jendearen parte-hartzeak.

Krisi gora eta behera... Mozorro-rako gaia ere izango al da aurten?

Jendeak orokorrean egunerokotasuna duten gaiak aukeratzen ditu. Hori da hemen karrozetan ikusten dena. Krisia ere, noski, izango da hizpide, ikusi dut taldearen bat edo beste ideia horrekin.

Eta nabaritu al da krisi hori jaian?

Bai eta ez. Agian karrozetan eta mozorroetan luxu gutxiago ikusiko da, baina festa ez da faltako, ziur. Guk adibidez, dena berziklapen bidez lortu dugu: egur hauek handik, besteak hemendik, garrantzitsuen ideia da eta elkarrekin ondo pasatzea.



E Elkarrizketa

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA > Etnologoa, historialaria, idazlea...

Inauteriak >> Juan Garmendia Larrañagarekin Inauterien inguruan hitz egin dugu; gaur egungo jaiak lehengokoen oso antzekoak direla dio.

REBEKA CALVO

Juan Garmendia Larrañaga 82 urteko tolosarra da. Urte asko eman ditu, besteen artean, gure ohiturak eta ospakizunak aztertzen eta Inauterien inguruko kontuak ezaizteko ia ezinbestekoa da berarekin hitz egitea. Txikitatik bizi izan ditu Inauteriak eta beste herri batzuetan ohitura galdu bada ere Tolosan jai hau ospatzeko modua ez dela horrenbeste aldatu dio. Izan ere, festaren ardatza ia bera da: musika, dantza, karrozak, txantxoak jantzea...

Zaldunita, Astelenita eta Asteartita dira egun nagusiak Inauterietan, ba al dakigu nondik datozen izen berezi hauek?

Ezin da esan, galdera honek ez du erantzun bakar bat; noiztik hitz egiten da euskaraz? galderarekin ere gauza bera gertatzen da, galdera honek ez du erantzun jakin bat. Hori bai Inauteria garizumarekin dago lotuta, garizumaren aurreko festak dira, alegia.

Zerbait argitu dugu behintzat.

Gabonak pasata egiten direla badakigu, bai, eta baita garizumaren aurreko hiru egun horietan egiten direla. Hauda, hausterre egunaren aurreko hiru egun horiek. Gaur egun, hala ere, herri askotan ospatu dituzte jada. Ohiturak aldatuz doaz-eta, lehen nik ezagutu nituen ihoteak Intzan (Nafarroa), baina orain ez dira egiten. Gazteak ez daude jada eta ohitura batzuk galdu egin dira.

Inauteria gazteen kontua baita!

Batez ere, horrela da. Zaharra joango da, noski, baina motorra gaztea da.

Ostegun Gizena eta Ostiral Mehea ere baditugu...

Hemen Ostegun Gizena dena, eta beste leku batzuetan Ostegun Zuri, Inauterien atariko modukoa da. Bakoitzak, hori bai, bere izena eman dio. Izen asko, gainera, galdu egin dira. Niri Inauterietatik beti interesatu izan zait asko festa bat galtzen denean horrekin batera izenak ere galtzen direla. Lexikoa-nere dokto-tesia ere honen inguruan izan zen- beti interesatu izan zait asko. Inauteriak leku askotan galdu dira, baina izenak gehiago.

Egun denak moztortu egiten gara Inauterietan, baina ez dira horrenbeste urte txantxoak jantzen ginel...

Tolosan eta Beterrin txantxoak zen eta baita Donostian ere XVIII. eta XIX. mendeetan zehar. Baina hitz hori galdu egin da eta hemen ere



R. CALVO

«Inauteria funtsean anarkoa da; festa alproja da»

bide beretik doa. Lehenago txantxoak ziren nagusi, pena da hori galtzea. Kontserbatu beharreko izena da, moztortzea ondo dago, baina orokorrean hartuta. Aberastuna lehenagoko hitz horiei eustean datza, hizkuntza bestela, txirrotu egiten da.

Tarteka egiten dira, hala ere, garrai bateko hitz horiek berreskuratzeko saiorik; Zaldunita, Astelenita eta Asteartita dira horren adibide, ezta?

Galduta egon ziren bai, baina orain 40 bat urte-edo berreskuratu ziren. Honetan gainera, Tolosako Ekinbide Etxeak zerikusi zuzena izan zuen, izan ere, egitarauetan horrela jarri zuen. Berastegin, esate baterako, Zalduniotte, Asteleniotte eta Astearteiotte dira, bariante desberdinak daude.

Ba al dago desberdintasun nabarmenik Tolosako eta beste herri batzuetako inauterietan?

Bakoitzak berea du. Komunean, hala ere, gauza asko dituzte; inauteri guztiak anarkoak direla, dantza, musika, txantxoak jantzi edo moztortzea... herri guztietan komun da. Hori bai, herri txikitian puska biltzera joan ohi dira, Agate Deuna bezperan bezala, adibidez.

Asko aldatu al dira Tolosako Inauteriak?

Inauteriak Tolosan gutxi aldatu dira, ardatza, behinik behin, bera delako, noski aldaerak egon direla, baina funtsean ez dira horrenbeste aldatu. Herri txikitako inauteriak gutxiago aldatzen dira, beti izaten baita moztortzea, puska biltzea, dantza, mahaia —otorduak alegia, «Despues de panza, viene la danza» esaten den moduan—. Herri handietan, aldiz, karrozekin eta horiekin, gehiago aldatu dira. Tolosan ere gauza asko mantendu dira; diana, txantxoak, musika, zenez... Gutxi aldatu dira hauek.

Noiz ospatu ziren Inauteriak gurean lehen aldiz?

Zehazki ez dakigu. Aipatzen dira XVI. mendean, baina agerietan ere ez dago presentzia handirik, kontratuak dira, adibidez Zaldunitarako eginikoa... baina ez dago ezer zehatzik. Ez zeuden egituratuta. Inauteriak beti alprojak izan dira eta beraz artxibo ofizialetan oso gutxi dago Inauterien inguruan. sanjoanak, bai, baina hau kaleko jaiak da. Inguruko herrietan ere ospatzen ziren gainera; Anoetan ere izango ziren orain 100 urte, Urkizun ere, Albizurretik Urkizua joa-

ten zirela... herri askotan joaten ziren puska biltzera.

Tolosan ez da inoiz puska biltzerik egin?

Beharbada memento zehatz batzuetan, ez behar bat egon eta horrentzako zerbait biltzeko...

Yoaldunak, ttuntturroak, Zantantzarrak... eta Tolosan Galztaundi?

Ramos Azkarate Otegi, 1904. urtean hil zena. Honek sortu zuen Galztaundiren letra, eta beharbada, bai, hori da Tolosako Inauterietan pertsonaia.

Eta noiztik dator txarangen ohitura?

Udal Bandarekin-edo hasiko ziren XIX. mendean bueltan, baina ez orain bezala, ez horrenbeste, bat edo beste etorriko ziren. Seguruenak elkartean babesean etorriko ziren.

Agintari askok debekatu izan dituzte Inauteriak, zergatik uste duzue dela?

Inauteriak Tolosan 1936. urtean normal egin ziren, baina hurrengo urtean, Gobernua Burgosen zegoela —Madril oraindik ere hartu gabe zuten tropek—, debekatu egin zituzten, zergatik? diktadura ez delako ezkontzen inauterietan.

Inauteria funtsean anarkoa da eta diktadurak ordena pixka bat behar du. Francoren tropek Donostian sartu zireneko etorbideari ere izena aldatu zioten segituan; Askatasunaren Etorbidea zen eta aldatu zioten izena.

Baina azkenean Inauteriak, egin, egin ziren...

Udaletxean karlistak zeudelako, eta batzuk behintzat karnabalen aldekoak ziren. 37. urtean botazioa egin zuten Inauteriak egin behar ote ziren edo ez erabakitzeke eta baizkoak eta ezekoak berdin egin ziren. Baina alkateak mugekin bazen ere egiteko esan zuen. Baina Tolosan ez ziren denak kar-

Ezin da esan Zaldunita, Astelenita eta Asteartita nondik datozen, ez dago erantzun jakin bat

Orain 40 bat urte berreskuratu zituen izenak Tolosako Ekinbide Etxeak bere egitarauetan

nabalen aldekoak eta egingo zirela zabaldu zen eta mehatxua ere egin zieten; inauteriak egiten baziren Udaletxetik guztiak botako zituztela. Francoren tropek Malaga hartu zuten eta hura ospatzeko bandako musiko batzuk kalera atera ziren, zezenen bat atera kalera... Eta Gobernadoreak alkateari deitu zion orduan kontuak eskatzeko eta berak orduan ospakizuna Francoren tropek Malaga hartu izanagatik zela esan eta dena konpundu zen.

Zer zen gaztetan gehien gustatzen zitzaizuna?

Txantxoak jantzia ibiltzea eta batez ere Astelenita gustatzen zitzairen. Asteartitari asteazken usaina hartzen nion eta ez zitzairen horrenbeste gustatzen. Egun guztia kalean ematen genuen. Gaur egun Astelenita umeen eguna da, konpartsa guztiak ateratzen direla, baina orduan ez zen horrela, herriko jende asko biltzen ginen eta oso gustura ibiltzen ginen.

Eta zer botatzen duzu faltan?

Gaur egun gauze bizi dira Inauteriak eta gauean dabilena, ordu txikitian, ez da goizean ibiltzen. Hori aldatu da behintzat.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Muq.: 689 805 633



Asteasuko pilotalekuan domatzaileak eta lehoiak: zirkoan bihurtu zen frontoia. NEREA URBIZU



Amezketan joaldun txiki-txikiak zeuden. Ez ziren falta urteroko talaiaik. ASIERIMAZ



Samaniego ikastetxeko talde bat txarangaren moduan atera ziren; buruhandiak ere ikusi ahal izan ziren, hauek guztiak Ostegun Gizenean. HITZA



Semaforo mordoia zegoen Zizurkilen. N. URBIZU



Adunako ikasleek antzerkia, dantzak, txisteak eta abestiak prestatu zituzten, ikusleen gozamenarako. N. URBIZU

Eskolako mozorroen bigarren txanda

Inauteriak » Atzo Adunan, Asteasun, Zizurkilen eta Amezketan ospatu zituzten Inauteriak, eta gehienek herritarrentzat, antzetzuz eta dantzatzuz.

ERREDAKZIOA

Batzuk Ostegun Gizenean eta beste batzuk, atzo. Ikastetxe ia guztiak modu batera edo bestera Inauteriak bizi dituzte eta horietako asko

kalean ere ibiltzen dira. Atzo, esaterako, Amezketan, Zizurkilen, Asteasun eta Adunan atera ziren.

Tolosako Samaniego ikastetxe-koek herenegun ospatu zuten,

eguna jai giroan hasiz: Inauteri doinuak, dantza, mozorro erakusketak eta txupinazora joan aurretik txorizo pintxo eder bat jan zuten indarrak berritzeko.

Asteasuko pilotalekua zirkoan bihurtu zen atzo arratsaldean, eskolako ikasleek mozorroa jantzi ondoren: tigreak, pailazoak, mimoak, domatzaileak... Frontoia lepo zegoen emanaldia ikusteko.

Antzerkia eta kalejira

Zizurkilgo kaleetatik aritu ziren Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza ikastolakoak. Hauekin batera txaranga ere aritu zen eta jendearen atentzioa lortu zuten honela. Ondoren, plazan emanaldia eskaini zuten, semaforoek, dantzari nahiz mexikarrek.

Adunan antzerkia izan zen nagusi: telesail bat antzetzuz zuten

kozkortuenek, eta jendeak barre algarak egin zituen hauen kontura. Hauen aurretik dantza emanaldia eskaini zuten txikiagokoez. Txisteak kontatzen trebeak direla erakutsi zuten batzuek.

Amezketako ikasleak plazara joan dira eskolatik abiatuta kalejira: joaldunak, talaiaik, lapurrak, poliziak, txirringululariak... zeuden. Dantza ere eskaini zuten.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**



Kalea lantoki bilakatzen denean

Saltzaileak » Goiza Antonio, Candida, Jose eta Juan saltzaileekin eman genuen atzo; euren gogoeta eta eskariak jaso genituen.

REBEKA CALVO-ASIERIMAZ

Tolosan, San Frantziskon barrena, asteburuetan kaleko erosleak ikusteak ohi-ko bilakatu da. Hauek saltzaileen-gana gerturatzeko dira; postua goitik behera begiratzen dute; zerbait eskatu edo hartu eta azkenean diruz ordaintzen dute.

Inauterietan jaiarekin batera, kaleak harreman ekonomiko z-ber-

teko dira; Antoniok, Candidak, Josek eta Juanek lana deitzen diote. Hauek ilargia irteten denean atsedentzen hartzen dute. Aldiz, izenak ez-kutuan mantentzera behartuta daudenak, lanera iluntzearekin batera agertzen dira; espaloiean izarak zabaldu, begiak azti ireki eta diskoak, loreak eta era guztietako tramankuluak eskaintzen dizkiete gaueko erosleei.

Inauterietako tolosarrak

San Frantzisko pasealekua goitik behera ezagutzen du Antoniok. Azken 25 urteetan Valentziatik (Herralde Katalanak) Tolosako bidea egin du neguan goxoki, jostailu eta Inauterietako mozorroak saltzeko: «bizimodu gogorra da baina salmentekin defendatzen gara, nahiz eta gastu asko ditugun».

Candida eta bere senarra Hondarribiatik etorri dira, portugaldarrak izan arren bertan bizi baitira. Festaz festa ibili ohi dira euren postutxoarekin, batez ere udaran. Tolosan Inauterietan eta San Joan

jaietan egoten dira: «Ez dugu ordutegirik, denbora gehiegi egoten gara, batzuetan 14 eta besteetan 20 ordu. Hala eta guztiz ere, bizirauteko bakarrik ematen du honek».

Jose eta Juan anaiak dira. Postu dotore eta koloretsua dute valentziarrek, jenero anitzekoa: «urtero etortzen gara. Jenero gehiena guk landutakoa da —fruitulehorrak, Elcheko datilak, deshidratatutako askotariko fruituak...—, gure produktuak egurrez xigortzen ditugu eta datatzatzen dituenak beti errepikatzen du. Saltzeaz gain, Inauterietan ere gozatzeko dugu lana amaitu ondoren».

«Udalerako oharra»

Bi anaia hauek urtean zehar hamaika azoka eta festetan jartzen dute postua eta Tolosako Udalerako ere badute «oharrik»: «Postua jartzeagatik tasa ordaintzen dugu, baina ez digute argi indarririk jartzen, beste herri guztietan ez dugu arazorik izaten, baina Tolosan generadore batekin ibili behar izaten dugu. Badakigu izarra Inauterietan direla, baina guk ere jaiak alaitzen laguntzen dugu».

Atzokoan postu gutxi zeuden San Frantziskon, baina gaurtik aurrera gehiago izango dira, urtero bezala.



Antonio, Candida, Jose eta Juanen salmenta guneak Inauterietan zehar egongo dira San Frantzisko pasealekuan. A. IMAZ-R. CALVO

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxebizitzak, era guztietako bulegoak, lantokiak eta abar luze bat garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe informazioa jaso nahi baduzue eta Irenerengatik galdetu 638 944 604 edo 695 708 271 telefono zenbakietara deituta.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Na - ish, S.L.
KAFFETEGIA

Gure bezeroei jakinarazi nahi diegu
Hausterre egunean, Otsailak 25ean,
Na-ish kafetegia 8:30etatik 22:00ak arte
IREKITA edukiko dugula.

San Frantzisko, 13 • Tolosa • Tel.: 943 655 289



IRUDIMENAREN LANTEGIA



Karrozak eta konpartsak » Bihar kalera aterako dituzte inauterizaleek azken egunotan prestatzen aritu diren karrozak; Tolosa kolorez jantziko da.

I. TERRADILLOS/N. LATABURU

Ferialekuan ohi baino jende gehiago topatu dugu azken egunotan. Margolariak, arutzak, galdragileak, artistak, elektrizistak... Lanbide guztietakoek bat egiten dute bertan, irudimenaren lantegian.

Azken ukituak ematen topatu ditugu inauterizaleak. Mailua eskuetan batzuk, margoak besteak... Koadrila guztiak euren karroza ahalik eta hobetoen egiten saiatzen dira. Inauterian aurkezpen-antolatzaileak emandako datuen arabera, aurten 250 talde inguru elkartu dira karroza, konpartsa eta aisialdi taldeen arte-

an. Partaidetza aurreko urteetan baino altuagoa izango dela azpimarratu dute. Emakumeen presentzia ere gero eta zabalagoa da, baina ikusi ahal izan denez, oraindik ere erderarena zabalegia da... Bihar arte itxaron beharko da kalean hori baieztatzen den ikusteko.

Belaunaldi berriak ere gogotsu sartu dira karrozen giroan. Garai batean jende helduagoak hartzen zuen parte karrozetan, baina orain gazte nahiz heldu ikus ditzakegu Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan.

Karroza eta konpartsa hauek diruz lagunduko ditu Udalak, behin Inauteriak amaituta. Taldeek guz-

tien argazki bat aukeratu beharko dute eta kultur sailekoei entregatu eurrek zehazten duten epearen barruan. Dena den, informazio gehiago eskuratu nahi duenak www.tolosakoudala.net helbidera jo dezake.

Lan gogorraren emaitza

Lanean jardun dute gogor dute karrozeroek azken hilabeteetan; «arratsaldean sartu eta ez dakigu inoiz noiz aterako garen hemendik», diote bertan daudenek, irrifarrea galdu gabe. Ez dira taldeko partaide guztiak azaltzen Ferialekura, «gehienbat ahal dugunok edota nahi dugunok».

Koadrilen artean ere giro ezin hobea sortzen dela diote, eta elkarri lagundu ere laguntzen diotela. «Batzuk eta besteek dakitenarekin osatzen dugu askotan karroza».

Ideiak ez dira inoiz agortzen

Kanpotar batek pentsa dezake, ea nola den posible urtero-urtero ideia berriak sortzea, inoiz jarioa ez etetea. Baina, tolosarrek badute zerbait berezia, Inauteriei begirada berezi batekin begiratzeko ahalmena edo.

Mahai baten inguruan eseri eta ideia berriak etengabe ateratzen dira. Askotan «egunerokotasunarekin harremana» duten gaiak aukeratzen dira. Horrexegatik ez dugu dudarik, aurtengoan *politikari* asko ikusiko ditugu kanpian, krisiak ere emango duela mozorro bat baino gehiago osatzeko ideia (Wall-Street ez, baina Apatta-Street-en akzioak beharaka omen doaz etengabe krisiaren ondorioz).

Abiadura Txikiko Trenak ere zeharkatuko ditu herriko kaleak eta, nola ez, telebistako saiok ere

beteko dituzte karroza ugari. Pirin eta Porrón pailazok ere Inauterietan emanaldia eskainiko omen dute. Haurtzaindegi bateko umegaitzok ere izango omen dira jaiaren protagonistak,.... Edozein aitzakia da ona jaiari gogoz eusteko.

Krisiaren Inauteriak ote?

Argi dago guztien ahotan, poltsikotan edota burutan dagoela krisia. Baina eraginik izango al du krisiak Inauterietan?

Udalaren aldetik, aurtengo aurrekontua 213.844,81 eurokoa izan da Inauteriak antolatzeko. Iazko kopuruari erreparatu gero 229.219 eurokoa izan zen. Murrizketa txiki bat izan da, beraz.

Inauterizaleen ustez, berriz, ez da gehiegi igerriko krisiaren eragina. «Kopuruan behintzat ez», diote Ferialekuko langileek. Euren us-

H Hilberria

JULIANA REZABAL MENDIZABAL

Andrea

2009ko otsailaren 20an hil zen, Donostian, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Senarra: Domingo Lizaso Zabala; seme-alabak: Gotzon eta Margaret, Pilar eta Pedro, Joseba eta Rosa Mari, Arantxa eta Joxe Migel, Jexux (†) eta Nerea, Julen eta Jone; bilobak: Egoitz, Oihan, Hasier, Josune, Leire, Nerea, Ainhoa, Eider, Irune, Enaut, Xuban, Markel; anai-arrebak: Gregorio (†), Joxemari, Roxario, Maritxu (†), Benantxio; ezkon-senideek, ilobek, lehengusuek eta gainerako ahaideek haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela gaur, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zestoako Andrea Mariaren Jaioakunde parrokiari, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Joan, 12- 4. esk.

Oharra: Hilberria Azeptitiko Beilatokian egingo da.



ZESTOA
2009ko otsailaren 21a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



tez, «agian jendeak beste era bate-
ra planteatuko ditu Inauteriak eta
diru gutxiago gastatuko du mozo-
rroak-eta prestatzen». Jakina den

Aurten Oria kalea, San Frantzisko, Nafarroako eta Foruen etorbidea zeharkatuko dituzte

Guztira 250 lagunek eman dute izena karroza, konpartsa eta aisialdi taldeen artean

bezala, edozein trapu zahar egokia
da mozorroa egiteko. «Ez da beha-
rezkoa egindakoa erostea», diote
inauterizaleek.

Aldaketak ibilbidean

Dagoeneko ezagutzera eman du-
tenez, Tolosako zonalde askori
eragiten dien kolektorearen lanak
direla eta aldaketak izango dira
Inauterietan. Hala, eta aurreko hi-
labeteetan bilera ugari egin ostean,
karroza, konpartsa eta aisialdi tal-
deen ibilbidearentzat irtenbide bat
bilatu dute.

Hain zuzen ere, San Frantzisko
ibilbidea, Foruen etorbidea, Nafar-
roa etorbidea eta Oria kalea zeha-
rkatuko dituzte karrozak eta
konpartsek, Zaldunitan eta Aste-

artitan. Neurri hau behinbehine-
koa izango da eta soilik neurri han-
dikoa karroza, konpartsa eta aisial-
di talderi eragingo die. Gainontze-
koak ohiko tokitan ibiliko dira, hau
da, San Frantzisko ibiltokian, Ron-
dilla kalean, Triangulon, Alde Zahar-
reko kaleetan,...

Arazoak ekiditeko

Karrozak eta jai giroak oro har To-
losako kale guztiak hartuko ditu.
Ondorioz, Tolosaren erdigunetik
autoak ibiltzea debekatuko dute.
Kanpotik herria bisitatu nahi dute-
nentzat ere garraio publikoa era-
biltzeko deialdi berezia egin nahi
izan dute Udaletik. Autoa erabil-
tzea beharrezkoa duten herritar-
rek, berriz, herriko kanpoaldean
aparkatu beharko dute, erdigune-
ko aparkamenduak ez baitira era-
bilgarri izango.

Emakumeenganako eman dai-
tezkeen erasoak ere ekidin nahi di-
tuzte Udaletik. Horretarako, ber-
dintasun sailak, pegatina eta kartel
batzuk banatu ditu, jarrera hauen
aurkako salaketa irmoa eginez eta
gazteak kontzientziatzeko.

Bestalde, herriarekin arduratsu
jokatzeko deialdia ere zabaldu
dute, jaiak izanagatik txikizioak
ekidin daitezkeelako. Ohikoak izan
dira auto, erakusleho, apur-
tuak ikustea. Ea aurtengoan ez da-
goen horrelakorik.



Apatta Street-en ere krisiak jota omen daude; akzio guztiak nabarmen jaitsi dira. Inauterietan igoko al dira? .INL



Lanbide guztiak bat egiten dute Ferialekuan: margolariak, arotzak, soldatzailak, ... Lan handiz prestatzen dituzte denek ere euren karrozak. NL



GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	9°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Garraio publikoa

■ **TSST.** Egunez eta gauzez larunbateroko zerbitzua, hau da, 22:45ean, 00:00etan eta hortik aurrera orduero 07:00ak arte, Jon Andoni Irazusta kaletik. Asteasutik Tolosarantz ere aterako dira orduero 23:00etan hasita 04:00ak arte, Zizurkil, Villabonan eta Iruran geldituz, eta Tolosatik Asteasurantz berriz orduero 23:30etik hasita 04:30era arte. Santa Klaratik abiatuko dira autobus hauek eta Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkil en geldituko dira.

■ **Tolosaldea bus.** Zumardi Txikitik aterako dira 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean Amartz - Ikaztegieta - Alegia - Armezeta - Tolosa ibilbidea egingo dutenak eta 01:00, 02:45 eta 04:15ean Amartz - Ibarra - Berrobi - Eldua - Elduain - Berastegi ibilbidea egingo dutenak, hauek ere Zumardi Txikitik irtenda.

■ **Hiribus.** Azken bidaia 22:00etan.

■ **Trena.** Gaueko ordutegi berezia: Irurera 01:00etan, 02:00etan (Donostiara arte), 03:00etan, 03:50ean (Donostiara arte), 04:55ean (Donostiara arte), 05:00etan eta 05:55ean. Brinkolara 02:00etan, 03:50ean eta 05:20etan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Haur danborradan parte hartzen duten guztiak 16:45ean Santa Maria kalean azaldu behar dute. Danborrada amaïtu ondoren, Gorriti plazan, eta ez Rondilla kalean, Veleta Aiz-Orratz elkartearen parean jaso behar dituzte haurrak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.



Egitarautik at dauden ekimenak

Tolosaldeko talde batzuk Plaza Berrian elkartu eta zenbait gauetan kontzertuak eskaini ohi dituzte Inauterietan; hala izan da azken urteetan, eta badirudi aurten ere errepikatu egingo dela ekimen hau, izan ere, herenegun bertan zuzeneko musika entzuteko aukera izan zen han bertan. Kasu honetan, Gargantas Desgarradas taldeko kideak — tolosarrak eta ibartarrak — izan ziren euren doinuak zabaldu zituztenak, eta jende ugari hurbildu zen beraiek zeuden lekuraino musikaz bertatik bertara gozatzera. R CALVO



Xexen-festak jarri zuen atzokoan giroa

Urtero atzoko egunez, Ostiral Mehe egunez gertatzen dena ikusi ahal izan zen atzokoan ere, hau da, egunean zehar festaren arrastorik ia ez dela topatzen. Arratsaldean, xexen-festak jarri ohi du giroa Ostiral Mehean, jende ugari gerturatzen baita zezen-plazara. Gauean, berriz, Arpegikoan emanaldiak —aurten 30 urte— jarri zuen umore ukitua. E EZEIZA

A Agurrak



Urte askoan!
Kakun Gibelalde (Ibarra).
Gaur 32 urte. Zorionak familia guztiazen partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Tolosako inauterietarako eskaintza berezia

angula kiloa 380 €

Ibailde angularen eskutik bi arrandegi hauetan lortzerik izango da eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 67 44 06
LOIRA arraindegia • Tel.: 943 65 00 13

fiesta on guztioi!